

Nafar karia

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko irailak 17 / III. urtea / 93. zenbakia

Bi hormetara



JOSETXO AZKONA

Gizateriaren portaera misteriotsua omen da, baina badi-
rudi egia eternal bat onar-
tu, liburu baten legaldu —Biblia edo
Koranen kasu—, predikatu eta prak-
tikara eramaten denetik: Jerusalem
izango da beti Israelgo hiriburu eter-
nala, ez dugu OLPekin inoiz nego-
ziatuko, terroristak baizik ez dira...
denbora kuantitatibo eta kualitatibo
bat iragan behar dela, egia borobil
horietxen kariaz sorturiko beste
errealitate batek: hiru miloi palesti-
nar desplazatu, zanpatu eta beren he-
zurretan txikiturik; haserako egia
ukaenezko haiek kili-kolon jarri
eta, finean, eror arazten dituen arte.
Maiz gertatu ohi da, bestetik, zalan-
tzagabeko egiak hizpide bakartzat
hartzen direnean, beste egia eternal
batzuk kontrarioarengan sortearaz-
tea: Israelgo Estaturik ez da eta
onesteztina da bere existentzia, ergo,
burrukan ariko gara beti, aharik eta
israeldarrek itsasora jaurtiki arte. Eta
hara non, bi pentsakera gogor hauen
protagonisten ordezkariak, biak etsai
amorratuak —bakoitzak bere liburu
sokratua besopean edukita—, No-
ruegan bildu eta, ustekabean —zen-
bat ustekabe azken bost urte haue-
tan!— egia eternal bezala irakurketa edi-
fiziotzarraren aristarik sendoenak
desmontatzeari ekin dioten, ekordio
eta negoziaketa prozesuari bide egi-
nez. Estraineko ezagutu dute elkar.
Lehenengo aldiz onartu dute bietariko
bakoitzak eskubiderik baduela existi-
titzeko. Eta ez da huskeria. Dena den,
egia eternalen sinetse segitzen du-
tenak asko dira oraindik bi bandoe-
tan, bereziki, bidegabekeria gehien
sufritzen dutenen artean: palestina-
rrak. Eta ulergarria da, Rabinen eta
Arafatek urratu berri duten bidea ez
da erraz ibiltzerik izango, oztopo
franko baitaude ibilbidean. Ez da
faltako ere aurreko puntura itzuli na-
hi duenik, baina, guziarekin ere, me-
rezi du menturatzek norabide horre-
tatik.

Gurera etorriaz, a zer martxa-zen-
tzuaren aldaketa!, horrenbeste
kuestiotan bibiliko plantarik duen
herri abertzale honek, eta, egia eter-
nal espainiarren kudeatzailerek
—bertakoak zein kanpokoak—, zer
ikasirik izan behar lukete esperien-
tzia honetatik; alde honetako Textu
Sakratuak: Espainiako Konstituzioa,
Gernikako Estatutua, Foru Amejo-
ramendua eta ETA-KAS Dotrina-
ria... egia borobilez ere josita egon
arren!

Navarra hoy

Monseñor Sebastián cuestiona las razones de los insumisos

El arzobispo duda, sin embargo, de que el trato que reciben sea "el más justo"

El nuevo arzobispo de Pamplona y obis-
po de Tudela, Fernando Sebastián, ase-
ra, en su carta semanal a los feligreses
navarros, que "las razones aducidas para
apoyar la insubordinación no son convincentes".
Sebastián afirma también que "lo que de
verdad lleva a la insubordinación es el juicio
condenatorio de cualquier actividad mili-
tar" y declara, en este sentido, que desde
el punto de vista cristiano "no se puede
afirmar que el Estado no tenga autoridad
para imponer a los ciudadanos un servicio
militar que los prepare en la "sociedad"
de la defensa legítima de la "sociedad".
No obstante, Sebastián, que tiene pala-
bras de elogio para los objetivos de con-

ciencia, cuestiona en su carta "si el tra-
tamiento que se está dando a la insubordi-
nación es el más justo o adecuado", aunque señala
que "eso son cuestiones de orden político
que deben ser resueltas por proce-
dimientos civiles y políticos, sin interferencias
clericales ni sobornos religiosos".

Pág. 5

Festival de Cine
de San Sebastián

Esta noche
comienza la 41ª
edición del
certamen

Con la proyección de la
película "The Thin Red Line", de
Sally Potter, y tras un breve
acto de inauguración, se abre
esta noche la 41ª edición
del Festival de Cine de San
Sebastián. El certamen, uni-
versitario y de categoría A de España,
se extenderá hasta el día 25.

Págs. 26 y 27

Los casos de gripe se han reducido en cinco años a la mitad en Navarra

Los casos de gripe en
Navarra se han reducido a la
mitad en los últimos cinco años
debido entre otros factores a las
campañas de vacunación que
realiza el Departamento de
Salud. Previamente, el progra-
ma de vacunación de este año
ya ha comenzado y alcanzará
a 71.625 navarros.

Los objetivos de la campaña
son vacunar al 70% de los mayo-
res de 65 años, a un 60% de
los profesionales de la enseñanza
y a un 55% de los inmigrantes.

'Navarra Hoy': eta bihar?

Hamaika urtetan hainbat gora behera ezagutu eta
gero, 'Navarra Hoy-k' jabez aldatu du berriro. Uhar-
teko egunkaria Zeroa Multimedia elkartearen eskue-
tan geratu da, Miguel Rico Asociados eraikuntza
enpresa operazioaren buruan egon delarik. Kontsei-
lari-ordezkarri berria Fermin Goñi kazetaria da eta
Fernando Bañon kudeaketaz arduratuko dena.

Zuzendaritzan lanetan, berriz, Ramon Mur kazetari
ezaguna jarri dute eta, honek dioenez, oraingoa ez da

eskualdaketa soila izango, 'Navarra Hoy-ren' desa-
gerpena baizik: «Egunkari berri bat egitera etorri
naiz». Berrikuntza aireek kalean utzi dituzte hogeita
bost langile, baina ez dago batere argi proiektu berria
nork aterako duen aurrera. Zuzendaritza berria 'Grupo
16' taldearekin aritu da negoziatzen, akordio sendorik
lortu gabe ordea. Hori dela eta, urrirako iragarri zuten
egunkari berriak luzaroan itxaron beharko du orain-
dik.

Gure aukerak

ERAKUSKETAK

Carles Planell pintorearen erakusketa zabalik dago Iruñeko Aurrezki Kutxa Munizipalak Gotorlekuan duen aretoan. Artista honen lanak irailaren 26a arte izanen dira ikusgai.

Maria Jesus Arbizu margolariaren erakusketa ikusgai dago Iruñean, Aurrezki Kutxa Munizipalak Garcia Castañon kalean duen aretoan. Erakusketa urriaren 10a arte iraunen du, eta ikusteko ordutegia ohizkoa da.

ZINEMA

'Robin Hood el magnifico' izeneko pelikula eskainiko dute asteburu honetan Badoztain eta Zaraitzu-Espartzan, gaueko 22.00etan hasita. Bihar, larunbata, Badoztainen botako dute.

'Robin Hood, lapurren printzea' filme ospetsuaren euskarako bertsioa botako dute bihar, irailak 18, Uharte-Arakilen, arratsaldeko 20.00etan hasita.

ANTZERKIA

Iruña Pequeño Teatro antzerki taldeak 'Historia de una muñeca abandonada' izeneko obra eskainiko du bihar, hilak 18, Badoztainen, eta igandean, Zaraitzu-Espartzan.

'Zalapartaka' antzezlan eskainiko du asteburu honetan Trokolo taldean Lizarra eta Iturenen. Lizarran gaur gauean izanen da, arratsaldean, eta Iturenen, berriz, igandean.

'Arratsalde bat zirkoan' izeneko antzezlan plazaletan du igandean, hilak 19, Popi eta Zaraitzako taldeak Sartaguda herrian.

BERTSO SAIOAK

Angel Mari Peñagarikano, Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Mikel Mendizabal, Estitxu Arozana eta Amaia Telletxea bertsolariak arituko dira igande honetan Doneztebeko pilotalekuan.

Sebastian Lizaso eta Jon Azpillaga bertsolarien saioa izanen da bihar Iturenen, eguerdiz eta arratsalde, herriko plazan.

Otxondotik Ikatzatea Bentara

Gaur proposatzen dugun ibilaldia igande honetarako, irailak 19, Nafarroa Kirol Elkarteak antolatu duena da. Urteko igande askotan egiten duten bezalaxe, oraingo honetan goizeko ibilaldi bat prestatu dute, Baztan aldeko mendiak zeharkatuz. Goizeko 8.00etan abiatuko da autobusa Iruñeko Autobus Geltokitik, eta ordubete berandua go, gutxi gora behera, iritsiko da Otxondora. Ibilaldian parte hartu nahi duenak Elkartera joan behar du, Jaraute kalera, edo bestela 22 43 24 telefonora deitu, gaur bertan.

Otxondon autobusa utzi eta bertatik Alkurruntz izeneko mendiratz abiatuko gara, dituen 932 metroak igotzera. Metro asko badira ere, adin guztietako jendeak igo dezake, martxa ez baita oso azkarra izango. Helburua, mendi ibilbide bat egi-teaz gain, bertako hariztiak, bideak, sakanak eta paisaiak ikustea baita. Mendi honetatik oso argi ikusten da, alde batera, Baztan osoa, bere herri politekin, eta beste aldera, Norabidea izeneko dermioa.

Alkurruntz mendia igaro eta gero, beherantz joanen gara, Zueta mendateko bidea hartuz, 725 metrokoa. Eta bide beretik jarraituz, eta beherantz, Meaka



Kolladora iritsiko gara, atsedan bat eginen dugularik. Meaka mendiak 655 metroko altuera du, eta handik bertatik oso gertu ikus daiteke Larro mendia, 800 metrokoa, aurre aurrean.

Meaka atzean utzi eta gero, Atxuela igoko dugu, 803 metroko mendia hain zuzen. Bertatik ikus daitekeen paisaia izugarria da, mendi ugari, batzuk txikiak, beste batzuk handiak, harizti eta pagadiz inguratutik. Hemendik aurrera bide guztia

beherantz joanen da, pixkanaka-pixkanaka senda estuak gurutzatuz.

Ordubiak aldera iritsiko gara helmugara, hau da, Ikatzatea Bentara. Bertan, atsedan une baten ondoren, bazkaltzera abiatuko dira, Amaiurrera. Nafarroa Kirol Elkarteak antolatu duenaren arabera, arratsaldeko seiak inguru izanen dira itzultzerako. Hala ere, ordua ez dago finkaturik, giroaren arabera alda daiteke.

ASTEKO PERTSONAIK



Jazek Ziober
Futbolari



Fernando Sebastian
Artzapezpikua



Javier Markotegi
Hezkuntza sailburua

Iritsi bezain laster erakutsi du jokalar poloniar honek bere kalitatea, eta honek animo ugari eman dizkio Osasunari. Jazek Zioberren golarri esker lortu zuen Osasunak igandean bere berdinetaren gola Sevillan. Honetaz gain, beste aukera batzuk ere izan zituen, eta gogoak eman zizkion taldeari, amorrua aurrera egiteko. Kopako partiduan ere sartu zuen beste gol bat. Bi partidu jokatu ditu eta bi gol sartu, ez da ez marka kaxkarra. Gainera, nahiz eta bere nazioko selekzioarekin partidua izan, igande honetako partiduan jokatu duela adierazi du, Errealaren kontrako hain zuzen, jakina denez, oso iportantea Osasunarentzat. Garbi dago jokalar batek ezin duela lan guztia egin, baina, beharbada, horrelako aurrelari bat behar zuen Iruñeko taldeak.

Fernando Sebastian Iruñeko Artzapezpikuak intsumisioari buruzko bere iritzia argi utzi zuen herenegun, bidalitako idazki batean. «Gaur egun intsumisiorako arrazoiek ez dute funtsik», azaldu zuen gotzaiak. Bere ustez, soldadutzaren aurkako arrazoi militarrik uler daitezke, armen kontrakoak, baina Ordezko Zerbitzu Sozialari uko egitea ez zaio ondo iruditzen. Hala ere, «Kristau ikuspuntutik, ezin daiteke esan Estatuak ez daukala autoritaterik herritarrei zerbitzu militarra ezartzeko, gizartearekiko lankidetzan aritzeko prestaketa moduan». Sorpresa izan dira Artzapezpikuaren deklarazio hauek, batez ere intsumisioaren aldeko mugimenduan, beste leku gehienetan eliz gizonen alde jarri baitira.

Ikasturte berria hasi da aste honetan Nafarroan, pasa den astelehen hain zuzen. Ez dira guztiak hasi, ordea. Agoizko ikastetxeko 101 ikasle, D eredukoak, ez dira klasetan sartu, irakasle bat gutxiago bidali dietelako protesta eginez. Baina Javier Markotegi kontseilariak garbi adierazi zuen: «ikastetxe horretan 288 ikasle dira eta 24 irakasle dituzte. Nahiko lukete beste eskola askok horrelako portzentaia izatea». Baina sailburuak ez du kontutan hartzen ikastetxe horretan lau eredu linguistikoak daudela, eta ezin direla batzuk besteekin nahasi. Beraz, ezin da orokorrean aztertu, ereduak baizik. Administrazioak, Markotegirekin batera, garbi adierazi du ez duela beste irakasle bat bidaliko.

AHAZTU GABE!

GALAR-ESPARTZAKO Zendearen Eguna ospatuko da asteburu honetan Kordobillan, ekitaldi ugariekin. Orain dela zortzi urte egiten da egun hau Galarren, Arlegi, Galar, Espartza, Getze, Subiza, Beriain eta Eskirozen egin duten aurreko urtetan, eta aurtten, Kordobillari tokatzen zaio. Egunduen filosofia garbia da: jaia antolatzen diru gehiegi ez gastatu, eta ateratzen dena Guatemala egin behar duten proiektu bat eta SOS Arrazakeria taldearentzat izango da.

Larunbatean, 'Esklabutasuna eta Arrazismoa' izeneko erakusketa zabalduko dute eguerdian, Kontzejuaren aretoan. Bertan, Afrikako artisautza salgai izanen da. Ondoren, 'La mision' pelikula botako dute, eta arratsaldean haurrentzako jokuak antolatu dituzte. Arratsalde eta gauean berbera dago.

Igandean, erakusketa zabalik izanen da. Eguerdian, meza, agintarien errezeptzioa ondoren, dantzak eta txalaparta ordubietan, eta bazkal orduan, herri kalderetara antolatu dute. Irrintzien lehiaketaren ostean, Folk musikaren kontzertua izanen da, Flamiz taldearekin. Azken orduan, zozketa Guatemala eta SOS Arrazakeria taldearen alde.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, **30 seme-alaba Nafarroako**. Elkarrizketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

'TXURI TA BELTZ' izeneko

saioa izanen da bihar larunbata, larunbatero bezala, Radio Nazionaleko euskarazko programazioan, Fermin Erbitiren eskutik. Eguerdian izanen da bihar, 13.00ean, eta astean zehar, arratsaldeko 20.00etatik 21.00etara izaten da, elkarrizketak, musika, albisteak, asteko gaien azterketak, denetarik entzun daiteke.

Araitz-Betelu Eguna Arriben

P. ULAIAR / IRUNEA

Araitz-Betelu Eguna ospatuko dute bihar eta etzi Arriben. Iaz irailaren 19 eta 20an Atallun egin zuten, estreineko, eta antolatzaleek, «herriarregan izan zuen arrakasta ikusita», aurten esperientzia errepikatzea erabaki dute. Araitz-Betelu Eguna «Araxes ibarreko herrikideen harremanak indartzeko eta komunitate bat izateko sentipena sendotzeko» jaio zen, eta aurten helburu berarekin ospatzen dute.

Larunbatean arratsaldeko bostetan haurrendako jolasak izanen dira, ordu bete beranduago marrazki lehiaketa, eta arratsaldeko zazpitan azkaria. Gaueko bederatzieta herri afaria dartzateko aukera izanen da, eta bi ordu beranduago, gaueko hamaiketan hain zuzen ere, «Nahita nahi ez» taldeak kontzertua joko du. Hamabi t'erdietan Izotz taldearekin gaupasa hasiko da, eta goizeko bostetan batxuri zopa banatuko da oraindik ere zutik mantentzen direnen artean.

Ospakizuna, esan bezala,

igandera arte luza-tuko da. Goizeko zortziretan diana joko dute bertako txistulariek herrietan zehar. Goizeko hamaiketan zanzanparrak eta txalaparta ikus eta entzuteko aukera izanen da. Eguerdiko hamabietan meza izanen da, eta ordu erdi beranduago eskulangi-tza erakusketa. Ordu bata t'erdietan bertsolariak ariko dira, eta ordu bete beranduago herri bazkaria hasiko da. Bazkalostean berriro ere bertsoak adituko dituzte bertan direnek, eta arratsaldeko bostetan 'Astunalde' taldearen eskutik dantzaldia izanen da. Arratsaldeko zazpitan Azkonebeitia eta Jokinen trikitixak amaiera emanen dio Araitz-Beteluko Egunari.

Araitz eta Betelu Araxes ibar-

rean kokaturik daude, Malloetatik iparraaldean. Zazpi herriz —Arribe, Atallu, Azkarate, Uztegi, Gaintza, Intza eta Betelu— osaturik daude. Bere hedadura 46 Kilometro karratukoa da, eta gutxi gorabehera 900 lagun bizi dira bertan. Bestalde, bailaren ekonomia nekazaritza eta abeltzain-

tzan oinarritzen da, belardiak, esne-abereak, behiak eta ardiak baitira sustengu nagusiak. Paisaiak, bere 'isolamenduak' eta hiri handietatik urbil egoteak -Iruñetik 35 kotxez minutura, eta Donostiatik 45 minutura-, Araitz eta Betelu ezagutu merezi duen paradisu txiki bihurtu dute.



Zanpantzarrak eta guzti izanen dituzte Araitz-Betelu Egunean.



BERAko eskoletan eta Akelarre taldeak antolatutik herri afaria izanen da gaur, hilak 17, gaueko bederatzieta. Ipar eta Hego Euskal Herriko bederatzi elkarrek osatzen dute AKelarre taldea, eta urtean behin hainbat ekitaldi antolatzen dituzte. Biriutuko Belatza jaleak, Urruñako Altxa Lili, Azkaingo Hazia, Sarako Olhain, Hendaiako Keinu, Berako Gure Txokoa eta Larun mendi taldea, Etxalarko Altxata eta Bortzirietako euskaltegiak elkarlanean eta 'Euskarak batzen gaitu! Mugarik ez!' lelopean aipatutako herri afaria antolatu dute, eta horretaz gain Larun mendira ibilaldia eta xardin eta gasna jatea eginen dute etzi, hilak 19.

TUTERAko Benjamin' institutoko Historia katedraduna den Esteban Ortak, Tuterari buruzko liburu historiko berria prestatzen ari da. Gutxi gora behera hilabete t'erdian baten barru egongo da prest liburuak, 'Tudela y Ribera de Navarra a través de los viajeros (siglos XV-XX)' izenburupean eta Tuterako Udaren 450.000 pezeta diru laguntzarekin. Honen truke, Udak liburu honen 250 ale jasoko ditu gutxienez. Liburuak idazteko 8 urteko ikerketa lana burutu du eta oinarritzat Ingalaterra, Frantzia, Italia eta Alemaniako idazleren liburuak erabili ditu. Hauetan agertzen diren apezak, bidaiariak, erregeak eta baita Becquer eta Baroja bezalako idazle ospetsuak aztertu ditu bere liburuak idazteko. Gainera, Tuteraren historiari buruzko argazkiek apainduko dute liburuak.



AGOIZko San Miguel Ikastetxe-ko D'ereduko ikasleek ezin izan dute ikasturte berria normaltasunez hasi, eta gainontzeko haurrak udako oporren ondoren astelehenean ikastolara itzuli ziren bitartean, bertako umeak etxean geratu ziren. Honela, irakasleen falta salatu nahi izan du Gurasoen Elkartek. hain zuzen ere, asteazkenean, haur eta gurasoak ikastetxearen ateen aurrean bildu ziren eta irakasle bat eskatzen zuen pankarta zabaldu zuten. Zonaldeko arduradunarekin ere elkaritzaketa burutu dute gurasoen ordezkariak egoera honi konponbidea bilatzeko asmoz, baina Administrazioak eskaria ez zuen onartu.

ARANGUREN

Ostirala, irailak 17.

12.00 Etxafueroaren zant-part-hotsak festak ekarriko ditu. Ezkil jotzea.
14.30 Anaitasuneko bazkaria.
20.00 Dantzaldia.
22.30 Herri afaria.
01.00 Dantzaldia.
05.00 Sorgin afaria. zerriki puska piper gorriarekin.

Larunbata, irailak 18.

08.00 Goiznabarreko soinuak.
10.30 Mendiko txirrindulaz martxa.
12.00 Erraldoi eta kilikiak, herriko karriketan barna.
13.00 Etxez-etxe karrikadantza, Patxi Iriarte akordeonistarekin.
16.00 Haurrendako jostaketak eta gaztelu puzgarriak.
17.00 Etxez-etxe karrikadantzaren segida.
18.30 Mus txapelketaren aurrefinak.
20.00 Dantzaldia.
01.00 Dantzaldia.
06.00 Sorgin afaria. Iruñerriko axuria txilindron pusketan.

LODOSA

Ostirala, irailak 17.

09.30 Dianak.
10.00 Haurrendako jokoak.
12.00 Sokamuturra ohizko tokian.
16.00 Haurrendako jokoak.
16.30 Tiro txapelketa.
18.00 Sokamuturra ohizko tokian.
20.00 Pilota partiduak udal pilotalekuan.
21.00 Copacabana orkestrarekin dantzaldia.
24.00 Copacabana orkestrarekin dantzaldia.



04.00 Txaranga.

Larunbata, irailak 18.

09.30 Dianak.
11.30 Sokamuturra ohizko tokian.
13.30 Pikillo piperra, eta San Roman ardandegiko ardoa Paseabidean biltzandiren guztientzat.
17.00 Medianil zelaian futbol partiduak.
17.00 Kioskoan haurrendako ikuskaria.
19.00 Sokamuturra ohizko tokian.
20.30 Meza eta Salbea.
21.00 Clasic's orkestrarekin dantzaldia.
24.00 Clasic's taldearekin dantzaldia.

04.00 Txaranga.

ALTSASU

Larunbata, irailak 18.

01.00 Sokamuturra Zubeztia plazan, Debako Ascensio Artetxe ganadutegiko bigantxekin.
08.00 Dianak eta kalejira.
11.00 Erraldoi eta buruhaundi konpartaren ohizko ibilaldia Kostakoso Gaita taldearekin.
11.00 Irristaketa ertakustaldia 12.00 Foru plazan hamabietakoa.
13.00 Navarra canta taldearen kontzertua Foru plazan.
17.00 Erraldoi topaketa.
17.00 Haurrendako azkaria Foru plaza.

zan.

20.00 Peñen azken jeitsiera.
20.00 Belea taldearekin dantzaldia.
22.00 Zzensuzkoa.
22.30 Santo Cristo de Otdia txapelketaren finala Burunda pilotalekuan.
23.00 Su artifizialak Zaragozako etxearen eskutik.
00.00 Festetako azken traka.
00.30 Belea taldearekin dantzaldia.

UHARTE

Larunbata, irailak 18

12.00 Suziriak jaiak iragarriko ditu Udaletxetik.
13.00 Japoniar bonbak San Juan plazan.
16.00 Erremonteko partiduak Euskal Jai Berri pilotalekuan.
17.00 Sambhu taldea haurrentzat, 'Txap, niri bost' ikuskizunarekin.
18.00 Futbol partiduak: Uhartea-Arenas.
19.00 Kalejira Antzar Gaztea txaranga-ekin.
20.30 Ohizko Salbea eliz nagusian.
22.30 Su festa futbol zelaian.
00.00 Jator taldearekin dantzaldia.

Igandea, irailak 19

9.00 Dianak Uharteko gaitero eta txistularien eskutik.
11.30 Prozesioa eta Meza Nagusia.
12.00 Kalejira eta, ordu biak arte, jaietako kartelen erakusketa.
12.30 Oberena dantza taldea.
13.00 Japoniar bonbak.
16.00 Erremonteko partiduak Euskal Jai Berrin.
18.30 Pilota partiduak.
19.00 Kalejira.
19.30 Jator taldearen dantzaldia.
22.00 Herrialdeko dantzak.
00.30 Jator taldearekin, dantzaldia berriro goizaldera arte.

EAJren eskutik sortua, 'Navarra Hoy' egunkaria alternatiba izateko bokazioz jaio zen orain hamaika urte. Gora beherez beteriko jardunean ez du egonkortasunik lortu ordea, eta Nafarroako egunkari nagusiaren itzalpean egon da beti. Orain, behin berriro eskuz aldatu eta gero, larru berriz esnatu nahi du.

Hamaika urteko kronika

EDURNE ELIZONDO / IRUÑEA

'Navarra Hoy' egunkariak 1982ko ekainean ikusi zuen argia lehen aldiz. Hamaika urtez egon da kalean eta bere bizitza ez da, erraten ohi den bezala, larrosaz betetako bide bat izan. Ezegonkortasuna izan da bere ezaugarri nagusia urte hauetan eta askok ere antzinatik iragarri zuten bere berehalako heriotza. Ukaezina da, bestalde, gora behera ugari izan duela eta etapa ezberdinei egin diela aurre. Orain, berri, bere desagertzea eta egunkari berri baten sorrera iragarri dute jabe berriek.

Denboran atzera egin, 'Navarra Hoy' egunkariaren hasierak gogoratzeko, erran bezala, 1982. urtera jo behar da, bere jaiotzaren urtera. Garai hartan bi egunkari ziren nagusi Nafarroan: 'Diario de Navarra' eta 'El Pensamiento Navarro'. Bigarren hau, hala ere, desagertu egin zen eta berak utzitako hutsunea betetzeko asmoz jaio zen 'Navarra Hoy'. Hain zuzen ere, 'Diario de Navarra' Nafarroako irakurle-goaren jaun eta jabe geratzeaz, «Iruñeko jende multzo batek bigarren egunkari bat ateratzeko aukera» ikusi zuen, Alfonso Ventura 'Navarra Hoy-ko' lehen zuzendariak gogoan duenez. Ventura Bilbotik etorri zen Iruñera, bertan 'Deia' egunkariaren zuzendaritza utzita, eta bi urtez aritu zen Uharteko egunkarian.

Nekez uler liteke 'Navarra Hoy-ren' sorrera EAJren eragina aipatu gabe. Alderdia zuten zatiak, Nafarroako jeltzaleek egunkari alderdikoi baten premia zuten eta, 'Deia' bultzatzeko zailtasunez jabetuta, egunkari berri baten erronkari eutsi zioten. EAJren eskutik sortu zen, beraz, tartean sozialistaren bat ere bazegoen arren.

Egunkariaren egoitza azkar baino azkarrago eraike eta ahal bezain laister kalera ateraz ziren. Hasierako langileak edo kazetariak oso gaizteak ziren, kazetari-tza bukatu berria zutenak. Baldintzak ere, ez ziren oso onak baina «ilusioa izan zen nagusi» Venturak gogoratzen duenez. Lehen etapa nahiko ona izan zen egunkari honentzat eta salmenta ere ez zen kaskarra izan. 'Diario

de Navarra' bera ere «urduri jar-tzea» lortu omen zuen.

EZEGONKORTASUNA NAGUSI EGUNKARIAN

Baina nonbait, bere baitan zuen egunkari honek istiluen hazia, eta bertan lau urtez (1986-90 bitartean) kazetari lanean aritu zen Aingeru Epaltzak dioenez, 'Navarra Hoy-k' sortze beretik izan zituen arazo asko. Asmo batekin sortu zen bere ustez, «'Diario de Navarra-ri' lekua kentzea, baina hau oso zaila da, honek 'Navarra Hoy-k' ez duen zerbait izan duelako beti, azpiegitura ekonomiko egokia eta zabaldua. Gainera, ohitura luzeko egunkaria da eta bere irakurlegoa ere oso finkoa da».

Hau izan zen 'Navarra Hoy-ren' hasierako erronka eta lehen urdetan neurri batean bete zuen, hedapena lortu baitzuen. Baina bere gainbeheran funtsezkoak izan diren bi hutsune izan ditu, hasierako joera hau zapuztea lortu dutenak: egunkariaren ideologia ez zegoen oso zehaztua; printzipioz abertzalea zen, baina euren jarrera ez zuten oso agerian utzi nahi. Abertzalea ez zen jendea ere bazegoen egunkarian. Venturaren garaian, adibidez, lehendakaria EAJkoa zen eta lehendakariordea PSOEkoa. Bestetik, egunkariak atzetik ez du proiektu enpresarial serioirik izan eta arazo ekonomiko asko izan ditu. Arazo hortan «maingu» ibili da, Epaltzaren ustez. Egoera honetan zaila da kazetariak hartzea eta daudenak ere ezin dira ongi ordaindu, lan giroa goibelduz. Eta guzti honek bere islada du egunkariaren eguneroko egitekoan.

ZUZENDARI ALDAKETA UGARI Bestalde, arazo guzti hauen eragina ere, egunkariaren zuzendaritza eta jabetzan isladatu da. 'Navarra Hoy-k' gaur arte lau zuzendari ezberdin izan ditu, Alfonso Ventura izan zen lehenengoa eta ondoren Jose Antonio Montonek hartu zuen bere lekua; hurrengoa Xabier Zabaleta izan zen eta azkena Juan Pedro Bator. Gaur egun, behin behineko zuzendaria Ramon Mur kazetaria da, proiektu berria martxan jarri bitartean.

Egunkariaren jabetzak ere al-

daketa ugari izan du. EAJren eskutik jaio bazen, ez zuen alderdiko liskarretatik ihes egiterik izan eta, alderdia banatzean, EAJren esku geratu zen. Arazo ekonomikoak latzak ziren, ordea, eta behearantz egin zuen.


Nafarroan Gobernuan alderdi sozialistak agintzen zuelarik, zorrak eta egoitzaren gaineko hipotekak barkatu zizkieten Uharteko egunkariari. Istilu eta iskanbila handiko egunak izan ziren. Hala nola, grebak eta lanuzteak gogoratzen ditu Aingeru Epaltzak.

Polemikak polemika, 'Navarra Hoy-k' etapa berri bat hasi zuen 1991. urteko udazkenean. Itxuraz berria, baina sakoneko arazoak konpondu gabe, usain sozialista izan du azken bi urteotan. Haatik, berrikuntzak ez zizkion publizitatearen atea ireki, are gutxiago irakurlegoa zabaltzen lagundu. Egunkaria ez dago OJDren kontrolpean eta, datu fidagarriak ez bada ere, garai onenetan saltzen zituen 17.000 aleetatik urrun dagoela erran daiteke.

Aipatzekoa da, halaber, 'Diario de Navarra' egunkariari lekua kentzeko jaio bazen ere, nahi gabe mesede handia egin diola. Hala uste du behintzat Aingeru Epaltzak. Egunkari berriaren agerpena zela eta, irakurleak ez gaitzeko bere burua berritu beharra ikusi zuen 'Diario de Navarra-k'. Modu honetan, bere produktua hobetu zuen, kolorea eta bestelako berrikuntzak gehituz eta, irakurleak galdu beharrean, gora egin zuen aipatu egunkariak. Horrela, Nafarroan saltzen diren bost egunkaririk lau 'Diario de Navarra' dira. Esan gabe doa, beraz, gainontzeko guztiak geratzen zaizkien apurak nahiko urriak direla.

Alternatiba izateko jaioa, bere helburutik nahiko hurbil ibili zen 'Navarra Hoy' bere garai onenetan, baina beti ere Iruñerrian, Erriberan ez baitu errotzerik lortu inoiz. Informazio lokalak zerikusi handia izan du honetan, herrietako kroniketan Uharteko egunkaria ez duelako Cordovillakoaren parera heltzerik izan.

'Navarra Hoy' kapitulu berri baten hasiera edo, akaso, bere azken kapitulu bizi du egun. Denborak erranen.



Goian, 'Navarra Hoy' kazetariak egunkari-ko erredakzioan ez dute girorik izan azken hilabeteetan. Ez dute eskualdekatari eta pertsonal buruzko zurrumurruak, baina kanporatzen dituzte. Ez dute abuztuta arte ezagutu. Ezkerreko irudian, Uharteko egoitzaren aurrealdea.

O. MONTERO

NAFARROA Gaur

E.E. / IRUÑEA

Bere ezaugarri garrantzitsuetariko bat izan ez bada ere, euskarak ere bere lekua izan du 'Navarra Hoy' egunkarian. Honek erantzulo nagusia Aingeru Epaltza izan da, berak hartu baitzuen euskaraz idatzitako aste-ten zailkien apurak nahiko ardu-ria. Asteakaria egin baino lehen, Euskal Telebistan lan egiten ari zela, euskarazko idatzia ateratzen zituen egunkari honetan, baina garai honetan euskararen agerpena «oso murrizta» zela aipatu du Epaltzak. Honela, 1986an hasi zen 'Navarra Hoy-en' lan egiten eta urte bat beranduago jarri zuen martxan Nafarroa Gaur asteakaria. Garai horretan Xabier Zabaleta, 'Egin' egunkari-ko zuzendari izandakoa zen 'Navarra Hoy-en' zuzendari eta berari proposatu zion aste-ka-

riaren ideia. Honek berehala onartu zuen eta aurrera egin zuen. hasieran asteartero ateratzen zen eta ondoren, igandero.

Euskarari bere lekua eskaintzeaz gain, Nafarroako euskaltzaleen bilgune bihurtzea izan zen bere helburua, Epaltzal erran duenez, eta «neurri batean lortu egin genuen». Halaber, bertako idazleek euren idatzia agertzeko aukera izan zen asteakaria. Aingeru Epaltzak 1990ean utzi zuen 'Navarra Hoy' eta ondoren, Joseba Balerdi kazetariak hartu zuen Nafarroa Gaur asteakariaren ardura. Baina Juan Pedro Bator, zuzendari zela, jabetza beste eskuetara igaro zen eta jabe berriek ez zuten komenigarria ikusi, Epaltzak gogoratzen duenez, «euskarari hainbesteko protagonismoa ematea». Honela, euskarak erabat desagertu zen 'Navarra Hoy' egunkari-ko orrietatik.


«Egunkari berria egitera nator»

E. ELIZONDO / IRUÑEA

«Nik ez dut 'Navarra Hoy' hartzen», argi eta garbi adierazi du Ramon Mur Uharteko egunkari-ko behin behineko zuzendaria. Murrek 'Deia' egunkariaren egin du lan 9 urtez eta 'El Correo Español-en' 6 urte eman ditu. Azken hilabeteotan, aldeiz, ETB-2ko 'Invitados' saioa zuzendu eta aurkeztu du eta, bertan zegoela, proposamen berri honi baietz erran eta Nafarroan dago berriro.

Askok, 'Navarra Hoy-ren' atal berriaz hitz egiten badute ere, Ramon Murrek zalantza izpiak ezabatu nahi izan ditu eta behin behineko zuzendaria «hutsune legala betetzeko baino» ez dela adierazi du. Egunkariaren izen aldaketari buruz ere, kazetari nafarrak «gerta daitekela» adierazi du, «nahiz eta oraindik zein izan litekeen ez jakin». Egunkari berri baten jaiotza iragarri nahi izan badu ere, langile gehienak orain arte 'Navarra Hoy' egunkariaren aritutakoak dira. Hala ere, kon-tuan hartu behar da abuztuan erredakzio-ko hamalau langile kanporatu zituztela, kazetari-ko-purua nabarmen murriztuz.

Ramon Murren ustez, Nafarroan badago 'Diario de Navarra' ez den egunkaririk nahi duen jendea eta horren frogaz argia, 'Navarra Hoy' beraren agerpena da; hain zuzen ere, «jende horren eskaerari erantzunio dio egunkari berriak». Egunkari berri honen



Ramon Mur, 'Navarra Hoy-ko' behin behineko zuzendaria. O. MONTERO

helburuak zehazterakoan Mur argia da: «Egunkari anitza egin nahi dugu, ideia ezberdin guztien-tzat irekia». Hala ere, «hauek beti erraten diren hitzak» direla aitortu du. 'Diario de Navarra-ren' ohitura luzea dela eta, erronka zaila dela onartu du behin behi-

neko zuzendariak, baina «hain sustraiturik dauden egunkari kontserbadoreei» aurre egin behar zaiela uste du.

Berrikuntzen artean, ezaugarri teknikoan aldetik, kolorea, informazioa, grafikoak eta abar azpimarratu nahi ditu egunkariak.

Bestalde, iritziak izango duen garrantzia nabarmendu du Murrek. Nafarroako biztanle guztien eritziak tartea izan ditzaten da bere helburua. Bestalde, kanpo-ko iritziez gain, egunkari barru-koa ere bultzatu nahi du, iritzi editoriala eta baita bertako kaze-tariena areagotuz.

Bestalde, Nafarroako egunkaria izanda, kazetari guztiek bertako informazioa lantzen dute eta hori dela eta, nazionala eta nazioartekoa lantzeko «laguntza» beharra aipatu du Ramon Murrek.

Gai honi buruz, azken egune-tan hainbat berri agertu da komu-nikabideetan. Hala ere, Murrek, «gauzak oraindik zehazteke» daudela adierazi du, baina harre-man hauek ezartzeko, 'Grupo 16' izan daiteke, bere hitzetan, talde aproposa. 'El Mundo-rekin' ere negoziaketak izan dira, orain arte antzuak ordea.

Egunkariak euskarari eskaini-ko dion tarteari buruz, euskaraz-ko iritziez gain, euskal literatura agertu nahi duela adierazi du ka-zetari nafarrak. Gainera, igande-an aterako den gehigarrian ere bere lekua izango du. Informazio soilar dagokionez, «zailagoa da euskara erabiltzea», bere ustez, baina ideia ez duela baztertzen erran du.

Gaur egungo 'Navarra Hoy' egunkariak dituen irakurleak funtsezkoak dira lan berri-rako, Murren hitzetan, «egunkari be-riak aurrera egin dezan».

EUSKARA LANEAN



EUSKARA IKASTAROAK LANGILEENTZAT

IZEN EMATEA, IRAILAK 23 BAINO LEHEN
MATRICULA ANTES DEL 23 DE SETIEMBRE
Tel. 21 06 26

¿POR QUE NO AHORA?
ZERGATIK EZ AHORA?

ANTOLATZAILEAK: CC.OO. GCT ELA ESK-CUIS LAB LSB-USO UGT.

LAGUNTZAILEAK:


Nafarroako
Gobernua



Gazteendako Zokoia



XAKEAN



J.M. Muruzabal (Alde Zaharra)
— Jesus Martinez Zazo (Oberena B).

1) d4, Zf6; 2) Zf3, d5; 3) c4, c4;
4) Zc3, e6; 5) e3, a6; 6) Ac4, c5;
7) 0-0, b5; 8) Ab3, c4; 9) Ac2,
Ab7; 10) Ge1, Ae7; 11) e4.

Beltzen peoiak oso aurrera joan dira. Erdigunea txurien esku dago. Gainera pieza guztiak erregearen hegaleria abiatzeko prest dituzte. Arazoak izan ditzakete beltzek.

11) ..., 0-0; 12) e5, Zd5; 13) Ze4, Zc6; 14) Ab1, Ab4; 15) Gf1, Gc8; 16) a3, Ae7; 17) Ag5, f6; 18) f6, Af6; 19) Dc2.

Ikus koadroa. Txurien erasoak egosten ari da.

19) ..., Zd4.

Hanka sartze galanta. Defentsa antolatzea zaila zuten. Baina jokaldi honekin partida bota egin dute.

20) Zd4, Zb4.

'Ag5' egin izan balute, 21) Zg5, Dg5; 22) Ze6. Kalitatea irabakiko lukete txuriek. Beltzak lehengo okerraz ohartuta, dama zirikatzen dute. Baina dagoeneko berenak egin du.

21) Zf6 xa, Gf6; 22) Dh7 xa, Ef7; 23) Dh5 xa, Ee7; 24) Af6 xa, Ef6; 25) Dh4 xa, Ef7; 26) Dh5 xa.

Eraso ederra daukate txuriek. Beltzek amore eman nahiago izan zuten. Xakean jokaldi txar batek partida hondora dezake, ikusi denez.

Gustora egoteko leku aproposa



LAURA MARCOS

Nere aitaren herria Castillan dago, hemendik kilometro askotara. Ni txikia nintzenean, herri hartara joaten ginen uda pasatzera. Nik ez dut batere gustoko hainbeste kilometro kotxez egitea, baina nere leku maitean egongo nintzela pentsatu eta kilometroak ez zitzaizkidan axola.

Herrira ailegatzean, egiten nuen lehenengo gauza nere gurasoei 'La Majadara'—leku horren izena—joateko baimena eskatzea zen. Beraiek auzokoak bisitatzea zihoazen bitartean, ni 'La Majadara' nihoan, noski, bederatzietan etxera bueltatzeko.

Urruti samar zegoen eta bidean nekutzen nintzen. Baina gogokoen nuen lekuan—zuhaitzen gerizpean—etzan eta neke guztiak kentzen zitzaizkidan. Triste nengoean, ez nuen

lagun bat behar, orain bezala, ez. 'La Majadara' joan eta zuhaitz eta loreekin hitz egiten nuen. Beraiek nere lagun onenak ziren, ulerkor eta leialak. Eta oso kontseilu onen emaleak!

Beroa egitean, oso hurbil zegoen ibaira joaten nintzen bainu bat hartzera. Ez dut inoiz ahaztuko behin batean gertatu zitzaidana. Arropa eta guzti nengoela, ibaira erori nintzen. Gainera, gaua zen eta hotz izugarria zegoen. Etxera ailegatzean, ze nolako errieta gurasoek egin zidatena! Hurrengo egunean Kristoren sukarrarekin hiri hurbileneko ospitalera eraman ninduten. Oso gaizki pasatu nuen, baina orain, oroitzen naizen bakoitzean, barre algaraka hasten naiz.

Horrela urteak eta urteak pasatu ziren, eta urte batean, nere izebari horrelako zerbait entzun zion: «Ikusi duzu Antoniok

eraikitako etxea? Ba, 'La Majada' jarri dio izenez. Izen polita, ezta?». Momentu batez arnasik gabe gelditu nintzen. Gero korrika hasi nintzen 'La Majadara'ntz. Beharbada Antoniok bere etxeari jarri zion izena, ez zuen zerikusirik 'La Majada' lekuarekin. Beharbada izen hori bakarrik gustatzen zitzaiolako jarri zion, eta ez 'La Majadan' egoteagatik etxea. Baina ailegaterakoan, justu nere lekuan etxea eraiki zutela ikusi nuen. Nere zuhaitza moztu zuten. Ezin nuen sinetsi. Ametsgaizto bat izan behar zuen, hori ezinezkoa zen. Baina ez zen amets bat, zoritxarrez errealitate huts zen.

Hori orain dela hiru urte gertatu zen, eta orduz gero ez gara berriro herrira joan. Nere leku maitea ezin dut inoiz gehiago ikusi. Gustora egoteko leku aproposa izan zena betirako ahaztu egin behar izan dut.

KAZKARROAN

G E D O K I M A P F X H
A U J R A R U Z V E C L
P J B E U U G U H I P A
F I L A M Z U K B E L I
L Z I E R A H O R A X O
E B L O I D I J K D E J
U J I G E R O D A F A E
H C A R A U E F M J X I
T K U N H A H P O T E B
F I T O B U Z C A H G A
O Z E N A R I R L J I H
U P I A R G I K F A Z D

LETRA
ZOPA

Aurki itzazu letra zopa honetan Nafarroako bost monastegi handien izenak. Izen hauek ezker eskuin, eskuin esker, goitik behera, behetik gora eta diagonalean irakurrita agertuko zaizkizu.



Luzaide

Urte Xacobeoa behar den bezala ospatzeko Donejakue bidean sartuko gara. Bi etapatan Donibane Garazitik Orreaga eta Auritz joanen gara. Ibilaldi hau egiteko bi bide ditugu aukeran. *Luzaideko bidea* bata, erabiliena eta interesgarriena. Karlomagno eta Errolanen guda-losteak hartu zuen huraxe, hain zuzen ere. Kamio egokia zen erromesentzat zortzi ostaletxe edo 'ospitalerekin' ongi hornitua zegoelako eta punturik gorena Ibañetan zelako, 1067 metrotan. Bestea, *Napoleon bidea* deitua, ibararren arriskuei ihes egiteko goitik joaten zen Lepoeder (1485 metrotan) zeharkatuz Orreagara heldu baino lehen.

Eztabaida handiak izan dira historialarien artean bi bideetatik printzipalena zein ote zen argitzea. Jose Maria Jimeno Juriok, hala ere, ederki demostratu zuen 1973ko *Principe de Vianan* idatzitako artikuluan Erroldanek *Luzaideko bidea* nahiago izan zuela.

Baina zer da *Luzaide*? Askorentzat, gehienentzat seguruenik, Arnegiko zubia baino lehentxeago dagoen herri ederra da. Hots, eliza, herriko-etxea eta frontoia dituen etxe multzoa. Plano guzietan, gainera, gauza bera ikusten da. Jakina hauetan *Valcarlos* ikusiko dugu.

Erdal izenak, haatik, argibidea ematen ditu. *Val Carlos Karlosen ibarra* da (hizkuntza guziek, euskarak izan ezik, enperadore handia gogoratzen digute: *Karlestal*, *Vallis Karoli*), hots, haran edo ibarra dela Baztan eta Esteribar bezalaxe.

Luzaide ibar haundi xamarra da gainera, estua bada ere eta, gaur egun, Ibañetatik Arnegiko zubiraino hedatzen bada ere badakigu zabalagoa izan zela. XIV. mendean, esate baterako, Ibañetak markatzen zuen hegoaldeko muga eta *Mondosseil* etxeak iparraldekoa, gaur Nafarroa Beherean. Nafarroako ibar guzietan bezalaxe *Luzaide* zenbait herri edo auzok osatzen dute: *Azoleta*, Gaiñdola, Gañekoleta, Pekotxeta eta *Elizaldeak*. Madozek izen hauen berri ematen badigu ere Altadillek jadanik *Elizaldearen* ordez *Valcarlos Villa* nahiago du. *Elizalde* izena *Nafarroako Euskal Izendegian* eipatu ere ez da egiten baina hau da bertakoek erabiltzen dutena gure *Valcarlos* edo *Luzaidere* ordez. *Elizalde* izenak elizaren garrantzia azpimarkatzen du, *Irauzketa*ko San Juan eliza hain zuzen ere. Eta horra hor gaurko *Elizalde* auzoaren izen zaharra orain etxe bakar batera mugatua dagoena: *Irauzketa*.

Beraz *Luzaide* ibar bat da ez etxe multzo bat, ez herri bat. *Luzaideko* auzorik ezagunena *Elizalde* da, behialako *Irauzketa*. Arretxe pilotaria, esate baterako, *Luzaideko* da baina ez *Elizaldeko* Gaiñdolako baizik.

MIKEL BELASKO

Jenero Xumekoak

Primu nintzela

Et eramus natura filii irae sicut et ceteri (besteak bezala, jaiotzez hiraren semeak ginen). Euskal Herriarekin Jaun Done Paulori salbuespen bat egitea atzendu zitzaion. Hemen hiraren semeak izateaz gain, hiraren aita-amak gara.

JEREMIAS ERRO

Bizi Bizian

Euskara Batzorde Sindikalak' aurtengo sentsibilizazio kanpaina aurkeztu berri du. Lan munduan euskararen normalizazioa du helburutzat eta proposamen handiguratsu honi eusteko, euskararen

ikaskuntza eta erabilera bultzatu nahi du lantokietan. Gisa honetako ekintzetan enpresarien falta somatzen duela dio sindikatu guztien ordezkariak biltzen dituen batzordeak.

Zortzi ordu horiek ere euskaraz

A. AGIRREURRETA / IRUNEA

Beste kanpaina bat. Iragarkiak eta komunikabideen euskarriak erabiliz, galdu ezin duen beste aukera bat eman zaio nafar biztanlegoari. Zertarako? Euskara ikasteko eta erabiltzeko. Eta nori zuzendua? Nafar langilegoari. Estrategia guzti honen arduradun eta antolatzaile, nafar sindikatuak.

Beste kanpaina bat; 'Euskara lanean' leloarekin asteotan aurkeztu dena. Baina ez edonola. Irudimen dosi handia behar du gure nafar alderdi politiko guztiek euskararen alde bat egin dezaketela pentsa ahal izateko. Eta sindikatuak berri, udaberri aldera gogora etortzen zaizkigun erakunde horiek, dagoeneko, hiru urte baino gehiago daramatzate euskararen aferan murgilduak.

Argi eta garbi omen dute beraien eginbeharra ez dela langilegoaren eskubide eta eskaeren bideratzera mugatzen. «Badugu beste hainbat eginkizun sozial ere», adierazi dute. Eta ideia hau abiapuntutzat hartuta, 'Euskara Batzorde Sindikala' eratu zuten, 1990. urtean. Maiz biltzen dira Batzordea osatzen duten sindikalistak, hots, UGT, CCOO, ESK-CUIS, CGT, ELA, LAB eta USOkordezkariak.

Talde lanean aritu den edonork ziurta dezake: elkarlana ez da huskeria. Eta kanpaina hau, euskararekiko oso sentsibilitate desberdinak dituztenen arteko lanaren emaitza da. Horregatik, egun hauetan, sindikatu guzti horiek sinatutako mezua kalean, lantokietan eta komunikabideetan agertzeak badu esanahi berezia. Garai batean, euskararen gaia polarizatua bazegoen, badi-rudi bide berria jorratzen ari dela, zentzu batean.

«Helburuak eta zergatiak betikoak dira. Euskararen normalizaziorako derrigorrezkoa da gure hizkuntza lan munduan ere indartzea. Azken finean, gure bizitzaren heren bat lantokietan ematen dugu eta bertan euskara erabiltzen ez bada ezingo dugu inoiz egoera normalizatua lortu», adierazi du Xabier Barberrek, CCOOkordezkaria. 'Euskara Batzorde Sindikalean'.


Kanpainak Hizkuntz Politikarako Zuzendaritzaren dirulaguntza izan du. Bitarteko materialak hobeki aprobetxatu nahian, aurtan, aurrekoetan ez bezala, kanpainaren mezua Iruñerrikanpo hedatzeari ekin diote. Juanjo Iturralde LAB sindikatuko ordezkariak azaldu duen bezala,

«gure proposamena sendotuz doa eta orain kanpaina beste esparru batzuetara zabalduko dugu».

Euskara ikasi nahi duten taldeak osatu eta irakaskuntza bera ere AE-Kren esku gelditzen da. Gutxi izan arren, badira langileen euskara ikastaroak ordaintzen dituzten enpresak edota ordu librean eskaintzen dituztenak ere. Baina, normalean langilearen kontura doaz «huskeria praktiko» hauek. Izan ere, matrikula ia nork ordaintzen duen izan ohi da argibide eske deitzen duen langile gehienak egiten duen lehen galdera.

Hala eta guztiz ere, eta baldintzak onenak ez diren arren, ia 150 langile baino gehiago aritu ziren euskara ikasten. Emaitza hauen irakurketa onuragarria egin dute sindikatuak, eta bitartekoak-bai materialak eta bestelakoak ere eskasak zirela kontuan hartu behar dela gogorarazi dute. Itxaropentsu agertu dira 'Euskara Batzorde Sindikaleko' kideak. Iaz 150 langile

lantokietan, enpresarien erreakzioa edota sindikatuak euskararen aurrean bat eginik agertzeak sortzen duen irudia.




Zergatik ez ahora?

A.A. / IRUNEA

Iragarkian agertzen den leloa dela eta, makina bat ustekabe eta hankasartze izan da. Beharbada, publizitate adituren batek leloak sortarazi dituen galdera eta zalantzak ontzat emango lituzke; jendea kezkatzea eta galdearaztea lortu badu, leloa eraginkorra da. Izan ere, '¿Por qué no ahora? Zergatik ez ahora?' irakurtzean, askok bigarren 'ahora' horretan 'orain' jartzea zegokiola uste baitzuen. Baina, itxurazko huts honen atzean irudimen zorrotza ibili da.

«Euskararen normalizaziora eusteko ikaskuntza eta erabilera bultzatu behar dela uste dugu. Euskaraz ez dakien langilea orain ikastera animatu nahi dugu. Leloaren lehen partea berari zuzendua dago. Bigarren esaldiarekin, berriz, langile euskaldunari euskara erabil dezan eskatzen diogu», esan du Juanjo Larraza ELAk Euskara Batzorde Sindikalean duen ordezkariak.

Irratietan entzun daitezkeen iragarkiek ozenki argitzen dute hitz-joko esanguratsua: 'Zergatik ez ahora? Atera bihotzetik ahora'. Euskara, noski...



animatu baziren, aurtan ez dute gutxiago espero. Gainera, sindikatuak azpimarratu duten bezala, badira beste emaitza zenbaezin batzuk: euskararen erabilera

Elena Bengoetxea

..... brigadista

Azken egunotan gaurkotasun gorri-gorrian izan da judutar eta palestinarren arteko bake akordioa. Euskal Herriatik Ekialde Hurbileko gatazka hori ulertzea nekeza da oso, eta Elena Bengoetxeak

afera argitzeko mugungarri gerta daitezkeen datuak ematen dizkigu honako elkarrizketan. Komite Internazionalistak erakundeko informazio brigada batek abuztua Palestinan pasatu zuen.

«Egunero palestinar bat hiltzen dute»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUNEA

Lanbidez zerbitzari, eta bokazioz brigadista, Elena Bengoetxeak hilabete —uztailaren 27tik abuztuaren 26ra arte— eman du Palestinan, edo Israelen, baikoitza hauta dezala nahiago duen izendegia. Tel-Aviv, Jerusalem, Zisjordania, Gaza, errefuxiatu kanpamenduak eta abar gertututik ezagutu ditu. Hona hemen bertan bizi izan zituen esperientzien laburketa.

EGUNKARIA.— Zein zen zuen helburua Palestinarantz abiatu zinetenean?

ELENA BENGOETXEA.— Informazio brigada moduan joan ginen. Gure helburua ahalik eta palestinar alderdi gehienekin hitz egitea zen, batetik haiek bizi duten egoeraren berri izateko, eta bestetik guk Euskal Herrian bizi duguna ezagutarazteko. Gure helburua bete genuela esan daiteke; izan ere, palestinar alderdi pilo batekin, eta hainbat pertsonaia ezagun eta garrantzitsuekin hitz egin genuen. Horien artean aipagarrienak izan liteke Yasra Al-Barbari hainbat urtez NBEn palestinarren eskubideen alde lan egin zuen emakumea, edo Haidar Abdul Shafi, azken hilabeteotan juduen eta palestinarren arteko negoziaketetan parte haru duen gizona.

EGUNKARIA.— Zeintzu dira judu eta arabiar gizartearen arteko desberdintasunik nabarienenak?

BENGOETXEA.— Oro har oso ezberdinak dira. Juduak oso harroak dira, eta sarritan, harrotasun hori dela eta, kaskar samarrak izaten dira. Esate baterako, zer-bait erosteko asmoz denda batean sartzen zarenean dendariak mesedea egiten dizula dirudi. Aurrepegi txarra jartzen dizute, eta ez dizute inolako erraztasunik ematen. Arabiarrekin guztiz



Brigadista Euskaldunak Yasra Al-Barbari, bere herriaren eskubideen alde borrokatu duen emakumearekin.

kontrakoa gertatzen da, zeharo ezberdinak dira. Dena den, hasieran batez ere, ez ziren gutaz gehiegi fidatzen.

EGUNKARIA.— Ematen duen bezain bortitza al da hango eguneroko bizitza?

BENGOETXEA.— Bai. Egunero norbait hiltzen dute. Hemen ez duzu guzti horren berri zehatzik izaten, eta han zaudelarik juduek indarkeria zein heinetan erabiltzen duten ikusten duzu.

EGUNKARIA.— Ezagutu al zenuten gertututik indarkeria hori?

BENGOETXEA.— Bai. Ramalah hirian —Jerusalemdik gertu— geundela, arabiar emakume batzuek bake negoziaketan kontrako manifestaldi bat egin zuten. Atzerritar brigadista franko bildu ginen bertan, eta emakume eta atzerritarren atzean gazte palestinar franko bildu ziren. Israelgo Armadako soldaduak tiroka hasi zen. Hasieran zerua zen haien

xedea. Geroxeago, inor mugitzen ez zenez, emakumeei bultza egin zieten. Atzerritarrok bultzaka zokoratu gintuzten, eta azkenean atzean zeuden gazteen kontra tiroka hasi ziren. Gaztetxo bat larriki zauriturik atxilotuta eraman zuten, eta beste asko atxilotu zituzten, gero komisaldegian jipoi-tzeko.

EGUNKARIA.— Israelen tortura lege onartuta omen dago.

BENGOETXEA.— Bai, hala da. Shlomo Gazit Israelgo Inteligentzi zerbitzuko buruarekin hitz egiteko aukera izan genuen, eta horrek argi eta garbi azaldu zigun legediak horri buruz dioena. Gaziten ustez mundu osoko komisaldegia guztietan Poliziak atxilotuak torturatzen ditu, eta hori dela eta aurrerapauso handia da tortura lege arautzea. Legeak atxilotuak —bere egoera fisikoaren arabera— zenbat kolpe jaso dezakeen finkatzen du, eta

aldi berean noraino ailegatu daitezkeen tortura sikologikoa.

EGUNKARIA.— Egon ba omen daude beste bitxikeri batzuk Israelgo legedian.

BENGOETXEA.— Bai. Latzena zera da, palestinarrek, berez, ez direla hiritarrak. Haien herrian kanpotarrak dira, ez dute nortasun agirik, bisa baizik. Bestalde, han 'aldez aurretiko' izeneko kartzela zigorra dago. Haien zat susmagarri baldin bazara epaiketarik gabe sei hilabetez kartzelan sartzen zaituzte. Ateratzen zarenean oraindik ere susmagarri baldin bazara, beste sei hilabete espetxean pasatuko dituzu. Badago jendea egoera horretan, epaiketarik gabe kartzelan hiru urte eman dituen.

EGUNKARIA.— Pil-pilean dagoen bake akordioa sinatzear zegoela egon zineten Palestinan. Nola zekusaten orduan palestinarrek bake negoziaketak?

BENGOETXEA.— Hemen komunikabideen bitartez jasotzen dugun informazioaren arabera Arafat palestinar guztien bozeramailea dela dirudi, baina ez da horrela inondik inora. PAEko alderdi baten burua besterik ez da —Al-fatah alderdi kontserbadorearena—, eta egon badaude PAEren barruan negoziaketan alde, baina lortu den akordia kontra dauden alderdi anitz. Alderdi guztiak negoziaketan alde daude, baina gehienek ez dakusate begi onez sinatu den bake akordioa. Horren arabera, Gaza Autonomi bilakatuko da, Zisjordaniak berdin jarraituko du, eta, beraz, egoera ez da gehiegi aldatuko. Dirudienez israeldarrek hemengo Autonomi Elkarteak aztertu dituzte hangoak osatzeko, eta hori dela eta Euskal Herriaren egoera ezagutzeko jakinmin handia zeukaten palestinarrek.

EGUNKARIA.— Bake negoziaketetan Jerusalem hiria dela eta tira-bira latzak sortzen ari da. Zein da hiri horren egungo egoera?

BENGOETXEA.— Jerusalem Zisjordania Lurralde Okupatuaren —juduek 'esparru administratua' deitzen diote— erdi-erdian dago. Inguruan bizi diren palestinarrek ez dute hirian sartzeko eskubiderik. Hiriko mendebaldean juduak bizi dira, eta ekialdean arabiarrek. Dena den, ekialdean hiriarren Alde Zaharra dago, eta erlijioaren ikuspuntutik garrantzi handia dauka alde horrek arabiarrentzat eta juduentzat. Hori dela eta horren erdia beraientzat hartu dute juduek. Horretaz gain Jerusalem inguruan gero eta judu herriak gehiago eraikitzen ari dira. Herri horiek ez daukate arabiarrekin inolako harremanik. Armadak babesten ditu eta haien helburua Jerusalem judua gero eta gehiago handitzea da.

NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

